

Katedrako argitalpenak

Revista de Derecho y Genoma Humano/Law and the Human Genome Review delakoaren 25. aleak argia ikusi du, 2006 uztaia-abendua dagokiona. Honakoa da bere edukia: *Una oportunidad para la investigación y la bioética* (Francisco Gracia Navarro); *Diagnóstico genético embrionario y libertad reproductiva en la procreación asistida* (Fernando Abellán); *Biobancos poblacionales: un análisis jurídico a partir de las experiencias islandesa y estonia* (Roberto Andorno); *El Preamble de la Declaración Universal sobre la Bioética y los Derechos Humanos de la UNESCO* (Héctor Gros Espiell); *Bionanociencia y bionanotecnología. Aspectos sociales y éticos* (Manuel Martín Lomas); *El delito de manipulación genética con fines de clonar seres humanos. Una contribución al estudio jurídico-dogmático del nuevo artículo 324 del Código penal peruano* (I) (David Rosario Mendiguri Peralta); *The issue of constitutional law, legitimacy on "human assisted reproduction" between*

reasonableness of the choices and effectiveness of the protection of all involved subjects (Simone Penasa); *Bioethnology and Law: Bioethnology Patents. Special considerations on the inventions with human material* (Jürgen Simon); *Biomedical research with human embryos: Changes in the legislation on assisted reproduction in Spain* (Jaime Vidal Martínez); *El concepto de dato personal relativo a la salud en la ley orgánica de protección de datos personales* (Jesús Rubi Navarrete); *La bioética desde una perspectiva social: European Biopolitics Conference* (Miguel Ruiz-Canela López); *Ovocyte donation for reproduction and the need for European and international regulation* (Ingrid Schneider)

Carlos M. Romeo Casabona/Aitziber Emaldi Cirión/ Leire Escajedo San Epifanio/Pilar Nicolás Jiménez/Sergio Romeo Malanda/Asier Urruela

Katedrako Kideen jarduerak

Carlos María Romeo Casabonak beste doktorego honoris causa bat jaso du. Oraingoan Peruko Moqueguako Unibertsitate Pribatuak eman dio bosgarren doktorego honoris causa hau. Izendapen ekitaldia joan den irailaren izan zen. Aurreko egunean Arequipako Santa María Unibertsitate Katolikoak iaz eman zion honoris causa doktore tituluaren izendapen ekitaldia izan zen. Horrez gain, Limako San Marcos Unibertsitate Nazional Nagusiak Irakasle Ospetsu izendatu zuen eta bertan “La discusión actual sobre el contenido y la objetivación del dolo” izeneko hitzaldia eskaini zuen. *El cibercrimen. Nuevos retos jurídico-penales, nuevas respuestas político-criminales*, (Comares, Granada, 2006) liburua koordinatu du eta bertan artikulatu bat argitaratu du: “De los delitos informáticos al cibercrimen. Una aproximación conceptual y político-criminal.” “Alcance y objetivos de la Declaración Universal” artikulua ere argitaratu du. *La Declaración Universal de Bioética y Derechos Humanos de la UNESCO* liburuan (Hector Gross Espiellek eta Yolanda Gómez Sánchezek koordinatua, Comares, Granada, 2006). Kolonbiako Externadoko Unibertsitateko Genetika eta Zuzenbideko Ikasketa Zentroak antolatutako “Manejo de Información y Consentimiento Informado en Materia Médica y de Investigación Científica. Aspectos Jurídicos, éticos y responsabilidad” biltzarrean hiru hitzaldi eman zituen, 2006ko uztailearen 26tik 28ra; “Repercusiones jurídico-científicas de la reproducción asistida” hitzaldia eman zuen Carmonan Sevillako Pablo Olavide Unibertsitateak antolatutako “Biociencia, conciencia y derecho ¿conflicto o relación?” udako ikastaroan (irailak 11-15).

“Les noves lleis de tècniques de reproducció assistida i de biomedicina” izan zen Lleidako Unibertsitateak antolatu zuen XVIII. Jornades Jurídiques Biociencia i pret izenekoetan emandako berbaldiraren izenburua (Lleida, urriak 26-27). Horiez gain, honako beste hitzaldi hauek ere eman ditu: “Human Biotechnology, Transculturality, Globalisation and Law”, Universitat Degl Studi di Parma antolatutako *Un Diritto per il futuro. Teorie e modelli dello sviluppo sostenibile e della responsabilità intergenerazionale* izeneko Biltzarrean (azaroak 30 – abenduak 2); “Aspectos legales”, Fundación para la Investigación en Salud delakoak antolatutako *Repercusiones del Proyecto de Ley de Investigación biomédica sobre el fomento de la I+D+i en España* izenekoan, (Madril, abenduak 13); “Repercusiones jurídico-científicas de la reproducción asistida” hitzaldia, UNEDek antolatutako “Libertad de conciencia, derecho y biomedicina. Aspectos ético-jurídico-científicos de la investigación sobre células humanas, reproducción asistida, eutanasia” izeneko udako ikastaroan, (Pontevedra, uztaialak 10-13). Bukatzeko, espainiar ordezkari den aldetik, Europako Kontseiluaren Bioetikako Batzordearen osoko bikurari parte hartu zuen (Estrasburgo, azaroak 20-23). “Declaración Universal sobre Bioética y Derechos Humanos” hitzaldia eman zuen Osakidetzaren Gasteizeko egoitzan (abenduak 18 eta 19).

Leire Escajedo San Epifanio irakasle lanetan aritu da “Formación en Trazabilidad de Alimentos. Tecnologías y Sistemas de Gestión” ikastaroan. La Concha de Villaeuscuan (Kantabria) izan da ikastaroa 2006ko urriaren 23tik 26ra, Centro de Estudios de la Administración Pública de Cantabria (CEARC) erakundeak antolatuta eta AZTI-Tecnaliak koordinatuta. Honako irakasgaiak eman ditu: “Problemas ético-sociales y jurídicos de los OGM” eta “La situación de los OGM en Europa, de iure y de facto”. Gainera “El medio ambiente en la crisis del Estado Social: su protección penal simbólica”, Comares, Granada,2006, argitaratu du. Liburu honetan goian aipatutako salaketa horretan jartzen da arreta eta beronen irismena aztertzen da sakontasunez ingurumenari gaur egun ematen zaion zigor aldetiko babesaren alde politikoa kriminaletan, kriminologikoetan eta dogmatikoetan.

Amelia Martín Urangak, Carlos III.a Osasun Institutuak antolatuta, Santandereko Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateko Botika Berritzaile eta Nanobotiken Espainiar Plataforma Teknologikoei buruzko ikastaroan parte hartu zuen joan den abuztuan. Irailaren gai beraren inguruko beste hitzaldi bat eskaini zuen Ikerketa Biomedikoari buruzko Jardunaldian, EBren I+Gko VII. Programa Markoaren barruan, Valentziako Felipe Printzea Ikerketa Zentroan. Urrian Zientzia Farmazeutikoen VII. Biltzarrean eta AEFren XXVI. Sinposioan parte hartu zuen, Madrilen. Carlos III.a Osasun Institutuaren Gaixotasun Arraroen Institutuko Etika Batzordeko kide izanik, laster argitaratzeko dagoen “Recomendaciones sobre los aspectos éticos de las colecciones de muestras o bancos de materiales humanos con fines de investigación biomédica” dokumentua prestatzen parte hartu du.

Pilar Nicolás Jiménezek honako hitzaldiak eman ditu: “Los derechos del paciente en investigación genética”, *Genética, Derecho y Sociedad* ikastaroan, UIMP (A Coruña, uztailearen 17an); “Aspectos Ético Legales de la Información Genética”, Ospitaleetako Aholkularitza Genetikoko Unitateen Lehenengo Jardunaldian (Madrilen, urriaren 18an); “Aspectos éticos y legales de la huella genética”, *1st International Seminar on DNA fingerprint in Europe* delakoan, Euskal Herriko Unibertsitatean (Leioan, urriaren 26an); “Aspectos éticos y legales del consejo genético”, *Cáncer Familiar y Consejo Genético* izeneko Sinposioan (Murtzian, azaroaren 17an); “Aspectos legales del genoma humano”, *Medicina regenerativa y células madre. Nuevas fronteras terapéuticas* izeneko biltzarrean (Badajozen, azaroaren 22an); “El consentimiento de los sujetos”, *Jornada sobre investigación con muestras biológicas* izenekoetan (Bartzelonan, azaroaren 27an); “Pautas en la elaboración de un Consentimiento

Mora, La Etica y el Derecho ante la biomedicina del futuro, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 2006

Argitalpen hau Zuzenbide eta Giza Genomako BBVA Fundazioa-Bizkaiko Foru Aldundia Unibertsitate arteko Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea Katedrako kideen ikerketako jardueraren fruitua da. Izan ere DU – Grupo Santander Ikerketa Saria jaso zuen lan honek deialdia egin zen lehenengo urtean, 2005ean, hain zuzen. Liburuak hainbat kapitulu ditu eta bakoitzean aurrerakuntza biomedikoen haririk sortutako interes sozial, etiko eta juridikoko gizarte gai jakin bat jorratzen da.

Lan honekin Katedra 1993an sortu zeneko eta ordutik ia hamalau urtez sendotuz joan diren helburuek markatutako ildoetan aurrera pausu bat ematen da: biomedikuntzaren, eta bereziki genetikaren ondorio etiko eta juridikoen esparruko ikerketa sustatzea eta zeregin horren emaitzen zabalkundea egitea.

informado en estudios de farmacogenética”, *Perspectiva actual de la Farmacogenética* izeneko ikastaroan (Santiago de Compostelan, azaroaren 15ean).

Asier Urruela Mora 2006ko irailtek ari da Zaragozako Unibertsitateko Zigor Zuzenbide, Zuzenbidearen Filosofia eta Zuzenbidearen Historia Sailean, irakasle laguntzaile doktore lanetan. “La investigación con células madre en el contexto europeo. ¿Resulta posible el consenso?” artikulua ere argitaratu du *Revista Portuguesa de Directo da Saúde Lex Medicinæ* delakoan. 2006ko irailen hizlari aritu zen Zigor Zuzenbideko Peru eta Espainiaren arteko III. Topaketan. Peruko Arequipa herrian izan zen topaketa hau San Agustín Unibertsitate Nazionalak antolatu zuen eta bertan “Modernas Aportaciones al debate en torno a la fundamentación material de la culpabilidad” hitzaldia eskaini zuen Asier Urruelak. Peruko egotaldian zehar, Asier Urruela Mora Arequipako San Agustín Unibertsitate Nazionaleko eta Moqueguako José Carlos Mariátegui Unibertsitateko ohorezko irakasle izendatu zuten. 2006ko azaroaren 23tik 27ra, jaio aurreko bizitzaren babes penalari buruzko modulu bat eman zuen Mexikoko Ciudad Juarezeko Unibertsitate Autonomoko “Nuevas tendencias de la política criminal en el siglo XXI” graduondoko ikastaroaren barruan. Bestalde, Osasun Sistema Nazionalaren Kalitatearen Agentziaren Zuzendaritza Nagusiak (Osasun eta Kontsumo Ministerioa) azaroaren 15ean eta 16an Madrileko Carlos III.a Unibertsitateko entzungelan antolatutako “Retos y realidades en el Sistema Nacional de Salud de España” izeneko biltzarrean, “Planteamiento legal de los Sistemas de Notificación en el ordenamiento jurídico español” hitzaldia eman zuen. Amaitzeko, 2006ko azaroaren 17an, “Aspectos éticos y legales de la investigación. Terapias génicas. Usos de la información genética” modulua eskaini zuen Alcabeteko Zuzenbide Fakultatean izan zen Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Osasun Zuzenbideko Masterraren barruan.

informado en estudios de farmacogenética”, *Perspectiva actual de la Farmacogenética* izeneko ikastaroan (Santiago de Compostelan, azaroaren 15ean).

Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren aurkezpena



Iñigo De Miguel Berianek honako ponentziak eman ditu: “Investigación genética y principio de precaución”, Madrileko Unibertsitate Autonomoak 2006ko irailaren 25ean eta 26an antolatutako “Avances en medicina y Derecho Penal” udako ikastaroan; “Tendencias en la Unión Europea sobre las posibles soluciones jurídicas frente a los dilemas relacionados con el inicio de la vida, las investigaciones científicas y sus aplicaciones biotecnológicas”, Kolonbiako Bogotan 2006ko urriaren 12tik 14ra izan den Medikuntza eta Osasun arloko Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Lehenengo Biltzarrean; “Relaciones y diferencias entre la bioética y el derecho médico-sanitario”, Kolonbiako Bogotan 2006ko urriaren 12tik 14ra izan den Medikuntza eta Osasun arloko Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Lehenengo Biltzarrean. Horrez gain, Alcance y objetivos de la Declaración Universal sobre Bioética y Derechos Humanos testua ere argitaratu du, Romeo Casabona irakaslearekin batera, Héctor Gros Espiell eta Yolanda Gómez Sánchezen *La declaración Universal sobre la Bioética y los Derechos Humanos de la UNESCO* liburuan, Madril-Granada: Comares-Universidad Europea de Madrid. 223-250. orr.

UNESCOko 2005eko urriaren 19an onartutako Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala aurkezteko ekitaldia antolatu zuen Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak 2006ko azaroaren 10ean.

Bi

UNESCOren Adierazpenaren aurkezpen ekitaldia Bilboko BBVA Fundazioaren egoitzan egin zen eta honako pertsona hauek hurbildu ziren bertara: Carlos Romeo Casabona jn., Zuzenbide eta Giza Genomako Katedraren zuzendaria; Vicente Gutierrez jn., BBVA Fundazioaren kudeatzailea; Iñaki Goirizelaia Ordorika jn. txit gorena, Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko campuseko errektoreordea; José Luis Ávila Orive jn. txit gorena, Deustuko Unibertsitateko Ikerketako errektoreordea; eta Gabriel Mª Inclán Iribar jn. txit gorena, Eusko Jaurilaritzako Osasun sailburua.

Buletin honen nobedadeen atalean aurkitu daiteke ekitaldi honen edukari buruzko informazio zabalagoa.

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Kideak :

Carlos Mª Romeo Casabona dk. irak. (Zuzendaria)

Aitziber Emaldi Cirión dk (Aldizkako argitalpenen eta jardunaldien koordinatzailea)

Asier Urruela Mora dk (Monografien eta mintegien koordinatzailea)

Leire Escajedo San Epifanio dk.. (Graduondoko ikasketen koordinatzailea)

Pilar Nicolás Jiménez dk (Ikerketa proiektuen koordinatzailea)

Sergio Romeo Malanda dk (Nazioarteko harremanak)

Iñigo de Miguel Berian dk.

Borja de Arana Agirretxe dk

Emilio Armaza Armaza jn.

Fátima Flores Mendoza dk. (Aholkularia)

Ulises Hernández Plasencia dk (Aholkularia)

Amelia Martín Uranga dk (Aholkularia)

Esteban Sola Reche dk (Aholkularia)

Leire Larrazabal Laradogoitia

(Idazkaria)

Posta Kutxa, 1

48080 Bilbao

Tel.: + 34 94 413 92 87

+ 34 94 445 57 93

Faxa:+ 34 94 445 55 13

llarraza@genomelaw.deusto.es

www.catedraderechoygenomahumano.es

Boletin hau Deustuko Unibertsitate itzulpen

Zerbitzuak itzuli du

Perspectivas

en Derecho y Genoma Humano

8 zenbakia, 2006ko abendua

Unibertsitate arteko Katedra BBVA Fundazioa-Bizkaiko Foru Aldundia Zuzenbidea eta Giza Genoma. Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea

Zuzendaria: Carlos María Romeo Casabona dk. irak. zuzenbidean eta medikuntzan eta honoris causa doktorea

Boletin hau ingelesez eta gaztelaniaz ere argitaratzen da

Albiste interesgarriak

Iritzia

Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren aurkezpena

Laguntza bidezko Ugalketako Teknikei buruzko Lege berriaren argi-ilunak

Sarrera

Aurrerakuntza eta aurkikuntza zientifiko eta teknologiko modernoek, eta bereziki biomedikuntza eta bioteknologia arloetakoek, sortze naturalaz bestelako ugalketa tekniken garapena eta erabilera ahalbidetu dute. Teknika horien berritasunak eta erabilgarritasun ukaezinak agerian utzi zuten horien inguruko araudi bat egin beharra. Espainia izan zen munduan teknika horiek arautzen lehenengo herrialdeetakoa, azaroaren 22ko laguntza bidezko ernalketako teknikei buruzko 35/1988 Legearen bidez. Lege horrek aldateta txiki batzuk izan zituen azaroaren 22ko laguntza bidezko ernalketako teknikei buruzko 35/1988 Legea aldatu zuen azaroaren 21eko 45/2003ko Legearekin. Azken lege honek, gainera, laguntza bidezko ernalketako soberako in vitro enbrioien ikerketarako erabilera arautu zuen. Bi legeak izan dira berriki indargabetuak eta bien ordez maiztaren 26ko 14/2006 legea ezarri da, laguntza bidezko giza ernalketako teknikei buruzkoa (aurrerantzean, LTRHA). Azken lege horren helburua honakoa arautzea da, 1. artikuluan ezartzen duen bezala: a) zientifikoki eta klinikoki bermatuta dauden laguntza bidezko giza ernalketako teknika aplikatzea; b) jatorri genetikoa duten gaixotasunen prebentzioan eta tratamenduan laguntza bidezko giza ernalketako teknika aplikatzea, behar diren berme diagnostikoak eta terapeutikoak izanez gero; eta c) zein kasutan eta zein baldintzatan erabil daitezkeen krikontserbatutako giza gameto eta aurreenbrioiak.

UNESCOko 2005eko urriaren 19an onartutako Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsala aurkezteko ekitaldia antolatu zuen Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak 2006ko azaroaren 10ean.

Bi

UNESCOren Adierazpenaren aurkezpen ekitaldia Bilboko BBVA Fundazioaren egoitzan egin zen eta honako pertsona hauek hurbildu ziren bertara: Carlos Romeo Casabona jn., Zuzenbide eta Giza Genomako Katedraren zuzendaria; Vicente Gutierrez jn., BBVA Fundazioaren kudeatzailea; Iñaki Goirizelaia Ordorika jn. txit gorena, Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaiko campuseko errektoreordea; José Luis Ávila Orive jn. txit gorena, Deustuko Unibertsitateko Ikerketako errektoreordea; eta Gabriel Mª Inclán Iribar jn. txit gorena, Eusko Jaurilaritzako Osasun sailburua.

Buletin honen nobedadeen atalean aurkitu daiteke ekitaldi honen edukari buruzko informazio zabalagoa.

Laguntza bidezko ugalketa teknikak eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontza

Abstentziekin hasita, deigarria da Lege berriak zelan tratatzen dituen laguntza bidezko giza

ugalketa teknikak bikote homosexualen kasuan. Puntu hori aztertzen duen artikulua, 6.3.a hain zuzen, 35/1988 Legean agertzen denaren oso parekoa da (azken honetan ere 6.3. art.). Hala ere, kontuan izan behar da LTRHA ezkontzeko eskubideari dagokionez Kode Zibila aldatzen duen uztailearen 1eko 13/2005 Legearen ondoren onartu dela.

Jakina, erreforma horren aurretik argi zegoen berezko seme-alabatasuna zein adopzio bidezkoa bikote heterosexualen kasuan baino ezin dela eman. Goian aipatutako legearen ondorioz ezkontza kontzeptuan gertatutako erreformaren ondoren, bikote homosexualen seme-alabatasuna zehaztea pakeatu egin behar da bikote heterosexualekin, berez naturak horretarako modua ematen badu. Horrela bada, ez dago inolako arazorik adopziozko seme-alabatasuna zehazteko bikote homosexual batekiko, berdin dio bi gizenezko zein bi emakumezko izan. Berezko seme-alabatasuna denean, ezinezkoa izango da gizenezkoen bikotearen kasuan, baina ezin da baztertu emakumeen bikote batez ari garenean, adibidez, emakumeatariko batek laguntza bidezko ugalketa prozedura bat jaso duenean emale baten haziaz. Halakoetan, bada, kontua da ea bien berezko amatasuna zehaztu daitekeen, ala ugalketa teknikak erabili ez dituenak adopziora jo beharko ote lukeen.

LTRHAren 6.3. artikuluak dioenez, “emakumea ezkontuta badago, senarraren baimena beharko du gainera, legez edo egitatez bananduta ez badaude eta hala agertzen bada fede-emateko moduan (...)”. Eta Lege horren 8.1. artikuluarekin bat, “ez amak ez honen senarrak, emale baten edo emaleen ikarpenaz ernaltzea aurretiaz eta berariaz formalki adostu badute ere, ezin izango diote ernalketa bidez jaiotako umearen ezkontzazko seme-alabatasunari kontra egin”. Erredakzio honek, “senar” hitza berariaz erabiltzean, badirudi baztertu egiten duela tekniken erabiltzailea den emakumearen emaztea bere ezkontidearengandik jaiotako haurren legezko ama era automatikoan izatea. Halako kasuetan adopzio prozedurara jo beharko litzateke.

Eta erredakzio hau ez dela ezkontza erregimen berria ahaztu duen legegilearen akatsa esan dugu; izan ere, legegile horrek izan du kontuan sexu bereko pertsonen ezkontzak izan daitezkeela Legearen beste pasarte batzuetan. Adibidez, LTRHAren 11.5 artikuluan, aurreenbrioen erabilera dela eta, zera esaten du: “emakumeak eman beharko du adostasuna edo, *gizon batekin ezkontutako emakumearen kasuan*, senarrak ere bai, aurreenbrioiak sortu aurretik”. Gainera, Legearen parlamentuko izapidetzean zehar ere



Deustuko Unibertsitatea



Euskal Herriko Unibertsitatea

Fundación BBVA

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

agerian geratu zen puntu hori. Izquierda Verde-Izquierda Unida-Iniciativa per Catalunya Verds talde parlamentarioak aldaketa proposamenak aurkeztu zituen (22. eta 23. zenbakia zutenak), “senar” terminoaren ordez “ezkontide” ager zedin ezkontzari buruzko araudi berrira egokitzeko. Ildo berekoa zen Esquerria Republicana talde parlamentarioak aurkeztutako 38. aldaketa proposamena ere. Geroago, Senatuan legea zapidetzan ari zela, berriro eskatu zen aldaketa arrazoi berberak alegatu (13. eta 15. aldaketa proposamenak, Entesa Catalana de Progrés talde parlamentarioak aurkeztuak).

Erregimen hau, gure aburuz, inkoherentea eta logika juridikorik gabea da. Hala ere, praktikan, epaileren batek onartu du ama biologikoaren emazteak legezko ama gisa izena ematea, aipatutako adopzio prozesura jo beharrik izan gabe. Izan ere, Kode Zibileko eta Erregistro Zibileko Legean ageri den seme-alabatasuna zehazterazi buruzko neurri batean aplikazio bortxatu batek posible egingo luke irtenbide hori, legezko bi testuok ezartzen baitute ezkontzazko amaren eta aitaren seme-alabatasuna, gurasoen ezkontzarekin batera, jaiotzaren inskripzioa egitean geratuko dela legez ezarrita. Horrekin batera, ezin da ahaztu 13/2005 Legearen helburua bikote heterosexualak eta homosexualak erabat berdintzea izan dela. Eta izatez, Lege horren lehenengo xedapen gehigarriak aipatzen du “ezkontzari erreferentziarik egiten dioten legezko eta arauzko xedapen guztiak berdin aplikatuko direla ezkontideen sexua edozein dela ere”. Baina aitasun-presuntzioei buruzko erregulazioak benetako zentzua du gizon baten eta emakume baten arteko ezkontza dagoenean. Dagoen araudia gorago aipatu dugun eran ulertzeak bi emakumeren arteko ezkontza aurretiaz izateak balioko luke ama biologikoaren ezkontidearen “amatasun presuntzioa” erabiltzeko. Izatezko bikoteen kasuan presuntzio hau ez dago, hortaz, laguntza bidezko ugalketa tekniken erabiltzailearen neska-lagunak horrela jaiotako umearen seme-alabatasuna zehazteko adopziara jo beharko luke, argi eta garbi.

Horrela bada, emakume bakarrak laguntza bidezko ugalketa tekniketara jotzeko legezko aukerak eta ondorio guztietarako heterosexualen eta homosexualen ezkontzak parekatzeak guregan sor dezaketen balio-judizioaz aparte, agerikoa da bikote hauen kasuan seme-alabatasuna zehaztea besteena bazela egin behar dela, bai egindako interpretazioaren bidez (auzitegietan dagoeneko egin duten moduan), bai, segurtasun juridikoaren mesedetan gomendagarriagoa litzatekeen eran, horrela aurreikusiko lukeen legearen erroformea baten bidez. Ildo horretatik pertsonen sexuari buruzko erregistroko zuzenketa arautzen duen Lege Proiektuan zuzenketa bat onartu da, indarrean dagoen LTRHA aldatuko duena aipatu dugun zentzuan, zehatzazgo esateko, 7. artikuluan 3. atal bat gehituz, eduki hau izango duena: “Emakumeen arteko ezkontzetan, ezkontideetako batek laguntza bidezko ugalketa teknikak erabili baditu, beste ezkontideak bikotekidearen seme edo alaba biologikoaren seme-alabatasun zuzena izango du (...)”. Zuzenketa honek ez die, ordea, aipamenik egiten ezkondu gabeko bikoteei.

Post mortem gurasotasuna

Arau orokor moduan, bai indargabetutako legeriak bai orain indarrean dagoenak (bietan 9.1. artikuluan), laguntza bidezko ugalketa tekniken bidez jaiotako umearen eta hildako gizonaren arteko legezko seme-alabatasuna egoteko, hura hil zen egunerako haren hazia emaztearen umetokian egotea eskatzen du. Hala ere, gizonaren aurretiazko baimena edo adostasuna egonez gero, hazia bikotekidea ernaltzeko erabili ahal izango da hura hil eta gero (LTRHAren 9.2. art.). Lege berriaren eta honen aurrekoaren arteko lehenengo desberdintasuna material biologiko hori erabiltzeko epeari dagokio, 6 hilabetetik 12ra igotzen baita. Bigarren desberdintasunak, garrantzitsuagoak, irtenbide argia eman nahi die jarraian planteatuko dugun bezalako egoerei.

2000. urtean bikote batek in vitro ernalketa bidezko tratamendurako tramiteak hasi zituen. Urte horretako abenduan bi ezkontidek adostasuna eman zuten enbrioen transferentzia egiteko eta tratamendu farmakologikoa hasi zuten. Baina transferentzia egin behar zen egun berean senarra hil egin zen bide-istripu batean. Hala ere emazteak

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

enbrioen transferentziarekin jarraitzea erabaki zuen. Prozedura hau 2001eko maiatzean burutu zen eta haurdun geratu zen emakumea. Alaba 2002ko otsailean jaiotakoa, amak Erregistro Zibilera jo zuen alabaren inskripzioa egiteko. Erregistro Zibilaren ardura zuen epaileak atzera bota zuen aitarengandiko alabatasuna zera argudiatuz: ernalketa berez senarra bizi zela egin bazen ere, ez zelako haren ageriko borondatea azaltzen haurdunaldia senarraren heriotzaren ondoren burutzeko. Emazteak erabakiarri helegitea jarri zion Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusian. Honek ezetsi egin zuen errekurtsoa 2002ko irailaren 24ko ebazpenean eta berretsi lehen auzialdiko epailearen erabakia.

Halako egoerak berriro errepika ez daitezten, legegileak beste lerroalde bat gehitu dio LTRHAren 9.2. artikuluari eta, horren arabera, “aurreko lerroaldeari dagokionez [senarra hil eta hurrengo 12 hilabeteetan emaztea ernaltzeko hazia erabiltzeko adostasunari dagokionez], adostasuna eman dela ulertuko da senarraren heriotza aurretik sortutako aurreenbrioen transferentziarako, bizi den ezkontidea dagoeneko hasita dagoen laguntza bidezko ernalketa prozesu batean badago”.

Enbrioia ezarri aurreko diagnostikoa

Enbrioia ezarri aurreko diagnostiko genetikoko teknikak berriki hasi dira erabiltzen. Espainian, enbrioia ezarri aurreko diagnostikoarekin lortutako lehenengo haurdunaldia 1994an egin zen. Orduko hartan hemofiliaren eramaile zen bikote bateko andrearen ondorengoen sexua aukeratu zen. Teknika honen azken xedea genetikoki osasuntsuak diren enbrioen haurdunaldiak burutzea da. Bereziki gomendatzen da teknika hori familian gaixotasun genetiko larrien aurrekariak daudenean edo enbrioian alterazio genetikook edo kromosomikoak gertatzeko arriskua dagoenean.

LRHAK enbrioia ezarri aurreko diagnostikoko teknikak erabiltzeko baimena ematen du kasu hauetan: a) gaixotasun hereditario larriak, goiz agertzen direnak eta, gaur egungo jakintza zientifikoen arabera, jaio ondoren osatzeko tratamendurik jaso ezin dutenak antzemateko, horretara gaixotasun horietatik libre dauden aurreenbrioiaren hautaketa egiteko; eta b) aurreenbrioiaren bideragarritasuna arriskuan jar ditzaketen beste alterazio batzuk garaiz antzemateko.

Edozein ere, Lege berri horrek indargabetutako legearekin erkatuta dakarren berritasunik nagusiena 12. artikuluan 2. atalean dago, baimena ematen baitu “enbrioia ezarri aurreko diagnostikoko teknikak erabiltzeko (...) hirugarrenentzako helburu terapeutikoetarako in vitro aurreenbrioien histokompatibilitateko antígenoekin konbinatuta erabiltzeko asmoa dagoenerako”. Halakoetan, kasuz kasu, osasun agintariek beren-beregi emandako baimena beharko da, Laguntza Bidezko Giza Ugalketako Batzorde Nazionalak aldeko txostena egin ondoren, kasu bakoitzaren ezaugarri kliniko, terapeutiko eta sozialak aztertuta. Hau da, LTRHAK aukera ematen du, gaixotasun genetikoa ez izateaz gain, genetikoki hirugarren batekin (normalean neba-arrebetariko batekin) bateragarriak diren enbrioiak aukeratzeko, transplante bat arrakastaz egin ahal izateko (hezur-muinekoa, kasurako). Laguntza Bidezko Ugalketako Batzorde Nazionalak teknika hori erabiltzeko hainbat eskari jaso ditu eta euretako batzuen aldeko txostena egiteko modua izango da.

Giza aurreenbrioeikin ikertzea

Azkenik, LTRHAN giza aurreenbrioeikin ikertzeari buruz aurrekusi den araudia azpimarratu behar dugu. Egia esan, ez da kontu hau aztertzen den lehenengo aldia, baina Lege berri honetan berrikuntza batzuk ageri dira indargabetu diren 35/1988 Legean eta 45/2003 Legean aipatzen diren zenbait konturekin erkatuta.

Lehenengo eta behin, aurreenbrioi kontzeptua argi eta garbi definitzen du: in vitro enbrioia da, obozitoaren pixkanakako zatiketatik sortzen den zelula multzoa, ernaldua izan eta 14. egunera artekoa (LTRHAren 1.2. art.). Horrela, jarraian ugalketa helburuetarako gizakien klonazioa debekatzen badu ere (LTRHAren 1.3. art.), lege hau ezin da aplikatu ernalketa bidez sortu ez diren enbrioen ikerketan, adibidez zelula somatikoen

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

transferentzia nuklearra izeneko teknika erabili denean (era desegokian “klonazio terapeutikoa” izena eman zaiona). Arlo hau lkerketa Biomedikoari buruzko Legean aztertzeko asmoa dago (une honetan tramite bidean dago parlamentuan).

Bigarrenik, laguntza bidezko ugalketa tekniketatik soberan zeuden aurreenbrioeikin ikertzea (35/1988 Legean debekatuta zegoen enbrioiak bideragarriak izanez gero) 45/2003 Legeak baimendu zuen, baina legea indarrean sartu aurretik (2003ko azaroa) kriokontserbatuta zeuden enbrioen kasuan bakarrik eta beti oso baldintza mugatuen barruan. Legea indarrean sartu aurretiko aurreenbrioen ikerketan muga horrek bazuen horrela izateko arrazoi teoriko bat, legegilearen asmoa 45/2003 Legea indarrean sartu ondoren soberako enbrioirik ez izatea baitzen. Helburu hori lortzeko, ugalketa ziklo bakoitzean gehienez ere hiru obozito produzitu baitzitezkeen, emakumeari, Legearen arabera, ezarri dakiokeen enbrioi kopuru bera. Baina handik lasterrera agerian geratu zen bezala, horrek ez du saihesten enbrioiak soberan ez gelditzea (adibidez, in vitro ernalketaren ondoren, emakumeak transferentzia egiteari uko egiten badio edo transferentzia hori bidera ezin bihurtzen bada). Gainera, laguntza bidezko ugalketaren ohiko praktika zaildu egiten zuen, emakumearen osasunerako ahalik eta arriskurik txikienarekin arrakastarik gehien lortzeko bitartekoak jartzea oztopatzen baitzuen.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

LRHA berriak ezabatu egiten du data jakin bat baino lehenago kriokontserbatutako enbrioen eta gainerakoen arteko desberdintasuna. Horretaz aparte, ugalketa ziklo bakoitzerako sortutako obozitoetan 45/2003 Legeak ezarritako mugak ere ezabatu egiten dira. Muga horiek kasu bakoitzerako egokiespen klinikoek soilik ezarriko dituzte.

Laguntza bidezko ugalketa teknikak aplikatzetik sortzen diren aurreenbrioeikin ikertzea edo esperimentatzea baldintza batzuk betetzen badira bakarrik baimenduko da, kasurako bikoteak idatzi bere adostasuna adierazi badu, edo, bestela, emakumea ados badago; aurreenbrioia obozitoa ernaldu ondoren 14 egun baino gehiago garatu ez bada in vitro, kriokontserbatuta egon den denbora kontuan izan gabe; edo ikerketa baimendutako zentroetan da kualifikatutako ikertaldeek eginez gero.

Horrez gain, ikerketak eskumena duten osasun agintariei aurkeztu eta hauek baimendutako proiektu batean oinarrituta burutu beharko dira. Aurretiaz Laguntza bidezko Giza Ugalketako Batzorde Nazionalaren aldeko txostena beharko dute ikerketa horiek, laguntza bidezko ugalketa tekniken garapenarekin edo aplikazioarekin lotutako ikerketa proiektuak izanez gero, edo, bestela, eskumena duten erakundeena, enborreko enbrioi zelulen zelula lerroak lortu, garatu eta erabiltzearekin lotutako beste ikerketa proiektu batzuk badira. Gaur egun eskumena duen zentro hori Zelulen eta Giza Ehunen Dohaintzaren eta Erabileraren Jarraipenerako eta Kontrolerako Batzordea da (LRHAren bigarren xedapen gehigarria), nahiz eta Ikerketa Biomedikoko Lege Proiektuak erakunde hori Zelulen eta Giza Ehunen Dohaintza eta Erabilerarako Berme Batzordeak ordezkatzea aurreikusten duen.

Jakina, ikerketarako dohaintza kriokontserbatutako aurreenbrioei eman dakiekeen erabileretako bat baino ez da. Beste batzuk ere egon daitezke, LTRHAren 11.2. artikuluaren arabera: emakumeak berak edo ezkontideak (bi emakumeren arteko ezkontzetan) erabiltzea, ugalketarako dohaintza egitea edo kontserbatzeari uztea beste erabilerarik eman gabe.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Sergio Romeo Malanda dk.

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

“**Nuevas políticas legislativas en España en relación con la investigación biomédica. El proyecto de Ley de investigación Biomédica” Mintegia**

Joan den azaroaren 9an, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak mintegi bat eskaini zuen “Nuevas políticas legislativas en España en relación con la investigación biomédica. El proyecto de Ley de investigación Biomédica” izenburupean. Bi saiotan banandu zen eta hauek izan ziren moderatzaileak: Ingrid Lilian Brena Sesma dk., Mexikoko Unibertsitate Autonomoko Osasun eta Zuzenbideko Diziplinarteko Ikasketen Nukleoko koordinatzailea; Pilar Canedo Arrillaga dk., Deustuko Unibertsitateko (Bilbao) Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko irakaslea; Edorta Cobreros Mendazona dk., Euskal Herriko Unibertsitateko (Donostia) Administrazio Zuzenbideko katedraduna; eta Dora Jiménez Ortiz dk., Donostia Ospitaleko Farmaziaren eta Osasun Produktuen Kudeaketa Klinikoko Unitateko burua.

Mintegia sarrerako hitzaldi batzuekin hasi zen. Bertan, ikerketa biomedikoaren ikuspegi orokorra eman zen ikuspuntu zientifiko eta juridikotik. Horrela, José Luis García López doktoreak, CSICEko ikerketa irakaslea eta Espainiako Bioteknologiako Elkarteko presidentea denak, “La situación de la investigación biomédica en España” izan zuen hizketagai. Rosa Ruiz Lapeña doktoreak, Zaragozako Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle titularrak, bere aldetik, “Derechos fundamentales en la investigación biomédica” izenburuko mintzaldia eskaini zuen. Hitzaldi hauen ondoren, gainerako hizlariak Ikerketa Biomedikoko Lege proiektuaren tituluak jorratu zituzten.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako ikertzailea, Aitziber Emaldi Cirión doktoreak, Zuzenbideko irakasleak eta Zuzenbide eta giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako Ikertzailea, Deustuko Unibertsitateko (Bilbao) Bioetika eta Zuzenbideko irakasleak eta ikerketa biomedikoen oinarri nagusiei buruz hitz egin zuen. Asier Urruela Mora doktoreak, Zaragozako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle laguntzaileak, “Investigaciones que implican procedimientos invasivos en seres humanos” gaia azaldu zuen. Lehen saioko azken hitzaldia Euskal Herriko Unibertsitatean Eusko Jaurilaritzako doktorego ondoko ikertzaile eta UNEDeko (Madril) irakasle tutore den Iñigo de Miguel Beriain doktorearen eskutik etorri zitzaigun.

Bigarren saioan beste pertsona hauek izan ziren parte hartzaile: Carlos María Romeo Casabona doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna eta Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako Zuzendaria, “Obtención y uso de células y tejidos de origen embrionario humano y de otras células semejantes” gaiaz mintzatu zen; Pilar Nicolás Jiménez doktorea, “Análisis genéticos” gaiaz aritu zen; Sergio Romeo Malanda doktoreak, Tasmaniako Unibertsitateko (Australia) Zuzenbide eta Genetikako Zentroko doktorego ondoko ikertzaileak, “Muestras biológicas y biobancos” gaia jorratu zuen. Mintegiari amaiera emateko, Leire Escajedo San Epifanio doktoreak, Euskal Herriko Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko irakasle elkartuak, “El Comité de Bioética de España” izenburuko komitentzia eskaini zuen; eta Ángel Rodrigo Bravok, Osasun eta Kontsumo Ministerioko Araudiko zuzendariorde nagusiak (Madril), “Promocion y coordinación de la investigación biomédica” gaia landu zuen.

Ikerketa proiektuen egungo egoera

EURECA europar proiektuak workshop bat antolatu zuen urriaren 5ean, 6an eta 7an San Petersburgon “Ikerketa eta ikerketa jarduera kontzeptuak mugatzea” (Delimiting the research Concept and research activities) gaiaren inguruan.

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Mintegi horretan hitzaldi bat eskaini zuen Katedrak. Mintegia bukatutakoan, proiektuaren koordinatzaile nagusien urteko bilera egin zen etorkizunean zer gai jorratu aztertzeko.

Bestalde, azaroan, Biotheted europar proiektuan parte hartzen dutenen bilera egin zen Heidelbergen (Alemania). Katedrak aukera izan zuen datozen hilabeteetan izango diren jardueren definizioan parte hartzeko, baita helburu horietarako proiektuaren zuzendaritzaren antolaketan aritzeko ere.

Europar proiektu berria: XENOME

Unibertsitate arteko Katedrak XENOME europar proiektuan parte hartzen du. Beronen helburua xenotransplantearen aplikazio klinikorako aukera aztertzea da, ikerketa ildo berriak jarraituz. Azaroaren 19an eta 20an Paduan izan zen lantaldearen lehenengo batzarra. Katedrak koordinatuko dituen bi moduluak proiektuaren emaitzen zabalkundeari dagokiona eta xenotransplantearen alderdi etiko, legal eta ekonomikoen azterketa dira. Koordinatzaile nagusia Paduako Unibertsitateko Emanuele Cozzi irakaslea da. Proiektu honetan Coimbrako Unibertsitateak (Portugal), Università degli Studi di Milanok (Italia) eta Panteion Unibertsitateak (Atenas) parte hartzen dute eta bost urteko iraupena izango du.

“Ikerketa biomedikoan eta biobankuetan lagin biologikoak erabiltzearen inplikazio juridikoak” proiektua

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren aurkezpen ekitaldia

Bioetikako Adierazpenari buruzko hitzaldia

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren aurkezpena azaroaren 10ean izan zen eta saio hartan hainbat adituk parte hartu zuten, Francisco Javier Quel López dk. (Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna Euskal Herriko Unibertsitatean, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoa Donostian) moderatzaile zela. Hector Gros Espiell doktorea “La Declaración Universal: su importancia e incidencia en el desarrollo del Derecho Internacional” gaiaz hitz egin zuen. Roberto Andorno doktoreak (UNESCOren Bioetikako Nazioarteko Batzordeko kide ohia) “La dignidad humana como fundamento de la Bioética y los derechos en la Declaración Universal” izenburuko hitzaldia eman zuen. Yolanda Gómez Sánchez doktorea (UNESCOren Bioetikako Nazioarteko Batzordeko kidea) “La naturaleza jurídica de los principios de la Declaración Universal” gaiaz aritu zen. Carlos M. Romeo Casabona eta Iñigo de Miguel Beriain doktoreak “Los objetivos de la Declaración Universal” gaiaren inguruan mintzatu ziren; eta Ingrid Brena Sesma doktorea Instituto de Investigaciones Jurídicasko Koordinatzailea, UNAM, México “Perspectiva de la Declaración en Iberoamérica” gaia aztertu zuen.

Adierazpenaren itzulpena

UNESCOk Adierazpena hainbat bidetatik zabaltzeko konpromisoa hartu duenez, bestek beste, mundu zabaleko hizkuntzetan ezagutzera emanez, Zuzenbide eta Giza Genomako Katedrak Adierazpena gaztelaniaz eta euskaraz zabaltzeko gonbidapena onartu du, dokumentua argitaratuz eta jendearen aurrean aurkeztuz, besteak beste.

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Zuzenbidea eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Aipatu dugun ekitaldian aurkeztutako edizioak UNESCOk onartu duen gaztelaniazko bertsioa jasotzen du, baita Deustuko Unibertsitateko Itzulpen Zerbitzuak euskaratu eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) ofizialki onetsi duen testua ere.

Ekimen honen bidez, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak, sorrerako estatutuan ezarritako zeregin akademikoa aintzat hartuta, inguruko gizarteari zerbitzu ematen eta nazioarteko erakundeetan mailarik gorenean lankidetzan aritzen lagundu nahi du.

Roche Institutuaren argitalpena UNESCOren Adierazpenaz

Carlos María Romeo Casabona irakasleak koordinatu du *Hacia una Bioética Universal: La Declaración Universal sobre Bioética y Derechos Humanos de la UNESCO* izena duen Roche Institutuaren argitalpena, Zuzenbide eta Giza Genomako Katedraren laguntzarekin.

Giza genomaren mapa, 2001. urtean zuzenbidearen bidez lortua.

Roche Institutuaren sorrerako bokazio humanista berriro jarri da agerian ekimen egoki eta apropos honekin, honen bidez argi onartzen baitu Bioetikari eta Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalak gero eta garrantzi handiagoa izango duela urteak aurrera egin ahala. Adierazpena espainiera hitz egiten den eremuan zabaltzen laguntzen du argitalpen honek. Zeregin horretan nazioartean izen eta ospe handiko autoreen laguntza izan du Institutuak. Hona hemen autoreak eta idatzi dituzten artikuluak: Héctor Gros Espiell, “Significado de la Declaración Universal sobre la Bioética y los Derechos Humanos de la UNESCO”; Carlos María Romeo Casabona/Iñigo de Miguel Beriain, “Ámbito de aplicación de la Declaración Universal sobre Bioética y Derechos Humanos”; Roberto Andorno, “El respeto de la dignidad humana en el ámbito biomédico según la Declaración de la UNESCO”; Yolanda Gómez Sánchez, “Los principios de igualdad, no discriminación y no estigmatización de la Declaración Universal de Bioética y Derechos Humanos”; Pilar Nicolás Jiménez, “La medicina individualizada frente a la Declaración Universal sobre Bioética y Derechos Humanos”; Sergio Romeo Malanda, “Impacto de la Declaración Universal de la UNESCO sobre Bioética y Derechos Humanos en el ordenamiento jurídico español”; Ingrid Brena Sesma, “Perspectiva de la Declaración Universal en Iberoamérica”.

Osasun eta Kontsumo Ministerioarentzako txostena

Zuzenbide eta Giza Genomako Katedrak bideragarritasun juridikoko txosten bat prestatuko du Osasun Ministerioarentzat zoritxareko gertakariak eta ondorioak edo gertaerak jakinarazteko eta erregistratzeko sistema bat martxan jartzeko. Araudi proposamen bat ere jasoko du, Ministerioak gai honen inguruko lege arau bat erredaktatzeko oinarri gisa balio dezakeena.

Zoritxarreko gertakariak eta ondorioak jakinarazteko eta erregistratzeko sistema bat sortzea Osasun Sistema Nazionalaren (SNS) Kalitate Planean sartuta dagoen helburuetako bat da, Ministerioko gaixoaren segurtasunarekin lotutako arlo guztiak hobetzeko hasitako lanen barruan. Horrelako sistemek hutsetatik ikasten dute eta saihestu egiten dute hutsok hurrengo batean gerta daitezten. Hori dela eta, borondatezko komunikazio sistema anonimoak, islepekoak eta zigortzeko balioko ez dutenak diseinatu eta garatu behar dira, eta horretarako sarritan indarrean dauden legeak hobetu beharra egoten da.

Ikerlan hau burutzeko, arloko legeria eta bibliografia aztertuko dira, bai estatu mailan eta bai nazioarte mailan, eta gai horretan adituak direnekin elkarrizketak ere egingo dira.